Parte hartu nahi?



Liburutegiak marrazki-lehiaketa antolatu du auzoko jaietarako. Zorroztu zure arkatzen puntak eta parte hartu! Saria ez da edonolakoa izango!

Lehiaketaren oinarriak

1. Marrazkiak lelo honekin lotura izan behar du: ***Liburua, abentura segurua.***
2. **8 eta 14 urte bitarteko neska-mutil**ek hartu ahal dute parte, **2 multzotan banatuta**:

   A multzoa: 8 eta 11 urte bitartekoak

   B multzoa: 12 eta 14 urte bitartekoak
3. Lanak liburutegian bertan aurkeztuko dira **uztailaren 14**a baino lehen.
4. Aurkezten diren lanek **21 cm luze eta 15 cm zabal** izango dituzte.
5. Lanak **gutun-azal itxian** aurkeztu behar dira, kanpoaldean "Marrazki-lehiaketa" adierazita. Barrualdean, marrazkia eta gutun-azal itxi batean, egilearen **izen-abizenak, telefono-zenbakia eta helbidea**.
6. Liburutegiko langileek eta auzokideen elkarteko kideek marrazkirik onenak sarituko dituzte. Horretarako, **originaltasuna, gaiarekiko lotura, eginiko ahalegina** eta abar hartuko dituzte kontuan.
7. Kategoria bakoitzeko sari bat izango da. Irabazleek **30 euroko bono bat** jasoko dute, auzoko liburu-dendetan eskolako materialaren truke egiteko; horrez gain, ipuin-liburu bat eta diploma bat ere jasoko dute.
8. Kategoria bakoitzeko irabazleen lanak liburutegiak datorren urtean argitaratuko dituen **orri-markagailuetan agertuko dira**.
9. Sari-banaketa **uztailaren 17**an izango da, arratsaldeko 17:00etan, liburutegiko areto nagusian.
10. Lehiaketaren antolatzaileek arau hauek aldatu ahal dituzte, beharrezko jotzen badute.

Zorte on guztioi!

LIVEWORKSHEETS

Izena_____ Data _____

Aukeratu erantzun zuzena.

1 Nork antolatu du marrazki-lehiaketa?

A. Marrazketa-eskola batek.

B. Auzoko eskolak.

C. Auzoko liburutegiak.

D. Auzokideen elkarteak.

2 Nork har dezake parte lehiaketan?

A. Umeek zein helduek har dezakete parte.

B. 8 eta 14 urte bitarteko umeek hartu ahal dute parte.

C. Helduek baino ezin dute parte hartu.

D. 8 urte baino gehiago duten guztiek hartu ahal dute parte.

3 Zein izango da lehiaketako saria?

A. Zoritxarrez, ez da saririk egongo.

B. Liburu bat baino ez.

C. Diru-bono bat, ipuin liburu bat, beste gauza batzuen artean.

D. Marrazkiekin kartelak egingo dira.

4 Zer gai izan behar du marrazkiak?

A. Liburuak eta abenturak izango dira gaia.

B. Gaia edozein izan daiteke.

C. Jaietako giroa izango da gaia.

D. Liburutegia izango da gaia.

5 Nolako neurriak izan behar dituzte marrazkiek?

A. Edozein neurritako lanak izan ahal dira.

B. Gutxienez 21 cm luze eta 15 cm zabal izan behar dituzte.

C. Gehienez 21 cm luze eta 15 cm zabal izan behar dituzte.

D. 21 cm luze eta 15 cm zabal izan behar dituzte.

Fotokopiatzeko materiala © 2012 Zubia Editoriala, S.L. / Santillana Educación, S.L.

LIVEWORKSHEETS

6 **Nork aukeratuko ditu lehiaketako irabazleak?**

A. Gurasoen elkarteko kideek.

B. Auzokideen elkartekoek eta liburutegiko langileek.

C. Parte hartzaileek eta auzokideek.

D. Liburutegiko zuzendariak.

7 **Noiz arte aurkeztu ahal dira marrazkiak lehiaketarako?**

A. Jaietako lehen egunera arte.

B. Uztailaren 17ra arte.

C. Eguberri egunera arte.

D. Jaietako azken egunera.

8 **Noiz eta non izango da sari banaketa?**

A. Uztailaren 17an izango da liburutegiko areto nagusian.

B. Jaietako azken egunean plazako oholtzan.

C. Uztailaren 14an eskolako areto nagusian.

D. Uztailaren 14an eskolako areto nagusian.

9 **Zer testu mota da irakurgaia?**

A. Gonbita.

B. Lehiaketa baten arauak.

C. Iragarkia.

D. Errezeta bat egiteko jarraibideak.

10 **Zein EZ da egokia esaldi honi bukaera emateko?**
Lehiaketen oinarri edo arauetan...

A. ...antolatzailea nor den adierazten da.

B. ...irabazlea nor izango den adierazten da.

C. ...irabazlea nork aukeratzen duen adierazten da.

D. ...saria zein den adierazten da.

Fotokopiatzeko materiala © 2012 Zubia Editoriala, S.L. / Santillana Educación, S.L.

LIVEWORKSHEETS